Esp. kodea: 2025CHOZ0006

Gaia: UR PARKEEN MANTENUA

Titularra: KIROLA BATZORDEA

Hasiera data: 2025/02/05

ARRASATEKO UDALEKO VILLA AMPARO ETA SANTA BARBARA UR PARKEETAKO URAREN KALITATEA ZAINTZEKO MANTENUA EGITEA ZERBITZUAREN KONTRATAZIOA AGINDU BEHAR DUTEN PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA	**PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS QUE HAN DE REGIR LA CONTRATACIÓN DEL SERVICIO DE MANTEMIENTO NECESARIO PARA GARANTIZAR LA CALIDAD DEL AGUA DE LOS PARQUES ACUÁTICOS DE VILLA AMPARO Y SANTA BARBARA DEL AYUNTAMIENTO DE ARRASATE**
1.- XEDEA ETA HELBURUA	**1.- OBJETO Y FINALIDAD**
Baldintzen Agiri honen helburua da Arrasateko Udaleko Villa Amparo eta Santa Barbarako ur parkeetako uraren kalitatea zaintzeko mantenua egiteko zerbitzuaren kontratazioan agindu behar duten baldintza tekniko eta ekonomikoak erregulatzea.	El objeto del presente Pliego de Condiciones es regular las condiciones técnicas y económicas que han de regir en la contratación de los servicios de mantemiento necesario para garantizar la calidad del agua de los parques acuáticos de Villa Amparo y Santa Barbara del Ayuntamiento de Arrasate.
Ur parkeak, batetik, uraren aisialdirako erabilera osasunean arriskua duen jardueratzat identifikatuta daude, igerilekuen irizpide tekniko-sanitarioak ezartzen dituzten 742/2013 Errege Dekretuaren eta 32/2003 Dekretuaren arabera eta, bestetik, legionela bakterioarekiko esposizio fokuak eta, beraz, legionelosiaren gaixotasuna zabaltzeko fokuak, legionelosia prebenitzeko eta kontrolatzeko osasun-baldintzak ezartzen dituen ekainaren 21eko 487/2022 Errege Dekretuaren arabera.	Los parques de agua se consideran por un lado, actividad de uso recreativo del agua que puede tener consecuencias negativas para la salud en el Real Decreto 742/2013 y Decreto 32/2003, por el que se establecen los criterios técnico-sanitarios de las piscinas y, por otro lado, actividad de exposición humana a la bacteria de la legionela y, por tanto, de propagación de la enfermedad de la legionelosis durante su funcionamiento en el Real Decreto 487/2022, de 21 de junio, por el que se establecen los requisitos sanitarios para la prevención y el control de la legionelosis.
Horrek eskatzen du egunean bi aldiz, neurketa eta kontrolak egin behar direla uraren zenbait kalitate parametroei eta bertako gailuen funtzionamendu egokiari dagokionez.	Ello conlleva tener que realizar dos veces al día, mediciones y controles sobre diversos paramétros de calidad del agua y correcto funcionamiento de diversos elementos.
Horrez gain, elementuen eta azpiegituraren inguruko gutxieneko kontrola ere eraman behar da.	A su vez, es necesario llevar un control sobre los elementos y la infraestructura.

2.- KONTRATUAN JASOTA DAGOEN ZERBITZUA EMATEKO EPEA	**2.- PLAZO DE PRESTACIÓN DEL SERVICIO CONTEMPLADO EN EL CONTRATO**
Kontratazio honen epea izango da 4 HILABETEKOA (2025eko maiatzaren 24tik 2025eko irailaren 30era) kontratua sinatu eta hurrengo egunetik aurrera, datorren urtean, 2026an, beste 4 hilabeteko uda denboraldi batez luzatzeko aukerarekin.	El plazo del presente contrato será de 4 MESES (en el año 2025 desde el 24 de mayo hasta el 30 de septiembre de 2025). Se podrá prorrogar el contrato, el año 2026, por una temporada de verano de 4 meses.
Prezioa egikaritze-unitateka finkatuta dagoenez, kontuan hartu behar da benetako gastua Administrazioaren benetako premiek baldintzatzen dutela.	Al estar el precio fijado por unidades de ejecución, debe tenerse en cuenta que el gasto efectivo está condicionado por las necesidades reales de la Administración.
Nolanahi ere, denboraldiaren hasiera bat etorriko da ur-parkeen irekierarekin (eguraldiaren arabera); beranduenez, 2025eko ekainaren 20an irekiko da, eta gutxienez 2025eko irailaren 15era arte iraungo du).	En todo caso el inicio de la temporada coincidirá con la apertura de los parques de agua (según el tiempo) que a más tardar será el 20 de junio de 2025 y se prolongará mínimamente hasta el 15 de septiembre de 2025).
Aurrekontua gutxi gorabeherakoa da, eta aurrekontu-erreserbarako balio du, baina ez da enpresa esleipendunarekiko inolako fakturazio-konpromisorik.	El presupuesto es meramente orientativo y válido a efectos de reserva presupuestaria, pero no supone un compromiso en modo alguno de facturación con la empresa adjudicataria.
Prezioa egikaritze-unitateka finkatuta dagoenez, kontuan hartu behar da benetako gastua Administrazioaren benetako premiek baldintzatzen dutela, eta Administrazioa ez dagoela behartuta unitate-kopuru jakin bat eskatzera, ezta aurrekontu osoa ordaintzera ere.	Al estar el precio fijado por unidades de ejecución, debe tenerse en cuenta que el gasto efectivo está condicionado por las necesidades reales de la Administración que no estará obligada a demandar una determinada cuantía de unidades ni a pagar la totalidad del presupuesto.
2.- KONTRATUAN JASOTA DAUDEN ZERBITZU MOTAK	**2.- TIPOS DE SERVICIOS CONTEMPLADOS EN EL CONTRATO**
Arrasateko Udalaren kontrolpean zerbitzu hauek egingo ditu adjudikaziodunak:	El adjudicatario realizará bajo el control del Ayuntamiento de Arrasate, los siguientes servicios:
1. Ponparen aurre-iragazkiak garbitzea .	1. Limpieza de prefiltros de bombas.
2. Ponpa orokorraren iragazkia garbitzea.	2. Limpieza de filtro de bomba general .

3. Iragazkiak garbitzea eta irakuztea.	3 Lavado y enjuague de filtros.
4. PH eta kloro-zentralaren irakurketa eta emaitzen erregistroa.	4. Lectura y registro de resultados de centralita de PH y cloro .
5. Instalazioaren kontrol orokorra (elektrobalbulak, pompak…).	5. Control general de la instalación (electroválvulas, bombas….).
6. PH eta kloro bidoien kontrola eta ordezkatzea. (produkuak Udalak erosiko ditu)	6. Control y reposición de bidones de PH y cloro. (los porductos los facilitará el Ayuntamiento)
7. Inzidentziei erantzun eta irtenbidea ematea, bere eskumen artean dauden lanei badagokie, parkeak zabalik dauden bitartean.	7. Atender incidencias y resolverlas si son de su competencia, mientras los parques estén abiertos.
8.- Elementuren batean matxura balitz edo puskatuko balitz, kirol saileko mantenuari jakinaraztea.	8.- Comunicar al servicio de mantenimiento de deportes, cualquier avería o rotura de los elementos de los parques.
9. Inyekzio puntuak garbitzea.	9. Limpieza de los puntos de inyección
10. Adjudikaziodunak Arrasateko Udalak deitutako bilera guztietara joan beharko du, ezelako kostu gehigarririk gabe.	10. El adjudicatario deberá acudir a cuantas reuniones convoque el Ayuntamiento de Arrasate, sin costo adicional ninguno.
11.- Adjudikaziodunak Arrasateko Udalari emango dio PH eta kloro-zentralaren irakurketen erregistroa.	11.- El adjudicatario entregará al Ayuntamiento el registro de las lecturas de la centralita de PH y cloro
12. Adjudikaziodunak mantenu lanak egiten dituen bitartean, horren berri emateko, Udalak emandako herritarren informaziorako kartela ezarriko du ikusteko moduko lekuan.	12.- Mientras se realizan las labores de mantenimiento encomendadas, el adjudicatario colocará en lugar visible, un cartel informativo al respecto facilitado por el Ayuntamiento con el fin de informar a la ciudadanía.
MAIZTASUNAK: <u>1-5 arteko zerbitzuak:</u> Egunean bi aldiz egin ondorengo ordutegian:. Goizez: 7:00-10:00 Arratsaldez: 15:00-18:00 Txanda bakoitzean 2 ur parkeetan egingo dira eskatzen diren lanak.	FRECUENCIAS: <u>Servicios de 1 a 5:</u> Ser realizarán dos veces al día en el siguiente horario: Mañanas: 7:00-10:00 Tardes: 15:00-18:00 En cada turno se ejecutarán los trabajos en los dos parques.

6-12 zerbitzuak: Beharraren arabera.	Servicios de 6 a 12: En función de la necesidad.
3.- GIZA ETA MATERIAL BALIABIDEAK.	**3.- MEDIOS MATERIALES Y HUMANOS.**
Adjudikazioduna behartuta egongo da kontratua betetzean eskaintzan zehaztutako giza baliabideak kontratuari adskribitzera.	El Adjudicatario estará obligado a adscribir a la ejecución del contrato los medios personales necesarios para dar el servicio.
4.- ENTITATE ADJUDIKAZIODUNAREN BETEBEHARRAK	**4.- OBLIGACIONES DE LA ENTIDAD ADJUDICATARIA**
Kontratua betearaziko da kontratuan, baldintzen agirietan eta proposamenean ezarritako baldintzak zorrotz betez, bai eta Administrazio honek adierazten duen pertsonak ematen dituen jarraibideak ere.	El contrato se ejecutará con estricta sujeción a las cláusulas estipuladas en el contrato, en los pliegos de condiciones y en su proposición, así como a las instrucciones que le diere la persona que se indique de esta Administración.
5.- KONTRATUAREN HIZKUNTZA IRIZPI-DEAK.	**5.- CRITERIOS LINGÜISTICOS DEL CONTRATO.**
Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. Artikuluan ezarrita dagoena eta euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean eta hori garatzen duten arauetan erregulatuta dagoena; arauok erregulatzen dute, besteak beste, Arrasateko Udalaren Euskararen Erabilera Plana, 2024ko abenduaren 3an Udalbatzak onartutakoa.	El presente contrato está sujeto al régimen de doble oficialidad lingüística establecido en el artículo 6 del Estatuto de Autonomía del País Vasco. El establecido en el artículo y regulado en la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, Básica de Normalización del Uso del Euskera y sus normas de desarrollo, que regulan, entre otros, el Plan de Uso del Euskera del Ayuntamiento de Arrasate, aprobado por el Pleno el 3 de diciembre de 2024.
Enpresa esleipendunak administrazioaren hizkuntza araudiaren arabera jokatuko du, kontratuaren xede diren jarduera guztietan; eta beraz, enpresak administrazioarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak administrazioaren lan hizkuntzaren araberakoak, euskaraz zein gazteleraz, izango dira.	La empresa adjudicataria actuará de acuerdo con la normativa lingüística de la Administración en todas las actividades objeto del contrato, por lo que las relaciones orales y escritas de la empresa con la Administración dependerán de la lengua de trabajo de la misma, tanto en euskera como en castellano.

6.- KONTRATUAREN INGURUMEN IRIZPIDEAK	6.- CRITERIOS MEDIOAMBIENTALES DEL CONTRATO
Paperezko dokumentu guztiak ahal den heinean ekidin egingo dira, hots harreman eta dokumentu telematikoak lehenetsiko dira, eta erabilitako materiala birziklatu egingo da.	Se evitarán en la medida de lo posible todos los documentos en papel, priorizando los contactos y documentos telemáticos, y se reciclará el material utilizado
7..- KONTRATUAREN KLAUSULA SOZIALAK	**7.- CLAUSULAS SOCIALES DEL CONTRATO**
Kontratuari atxikitako langileei "Gipuzkoako kale-garbiketako eta hiri-hondakin solidoak biltzeko hitzarmen kolektiboa" aplikatuko zaie.	Al personal adscrito al contrato se le aplicará el "Convenio Colectivo de limpieza viaria y Recogida de Residuos Sólidos urbano de Gipuzkoa"

2025eko apirilak 2

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

LARRAITZ SANZBERRO ARACAMA
2025/04/04